

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000002547

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK1327**Xedea****Portatilak eskuratzeko hornidura kontratuaren esleipena onartzea.****Aurrekariak**

Lehenengoa: Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia deklaratu zuen, COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera dela eta.

Aurrekoaren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Alarma-Egoera dekretatu zen Estatu osoan, eta horrek aukera eman zuen osasun-larrialdiko egoerari aurre egitea eta herritarren osasuna eta segurtasuna babestea.

Bigarrena: Ondoren, deseskalada prozesu bat hasi zen, hainbat fasetan antolatua, eta botere publikoek eta osasun agintariek neurriak hartzen jarraitu zituzten agerraldiak kontrolatzeko eta infekzioak geldiarazteko.

Besteak beste, hurrengo xedapenak hartu ziren:

- 2020ko ekainaren 9an, COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euspen eta koordinazio premiazko neurriak ezartzeko 21/2020 Errege Dekretu-legea onartu zen.
- 2020ko ekainaren 18ko Lehendakariaren 14/2020 Dekretuz, deseskaladarako 3. fasea gaindituztat eta, horrenbestez, alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak indargabetu eta "normaltasun berria" hasi onartu zen.
- 2020ko ekainaren 18an, Osasun sailburuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero, beharrezko prebentzio-neurriei buruzko Agindua eman zuen.
- 2020ko uztailaren 28an, Osasun sailburuak, 2020ko ekainaren 18an emandako Aginduaren eranskina aldatzen duen Agindua eman zuen.
- 2020ko abuztuaren 14a, Segurtasun sailburuak, COVID-19 delakoaren hedapenaren ondoriozko osasun-alertak eragindako egoera dela eta, Euskadiko

**Sinadurea eta data**

Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, formalki aktibatzen Agindua eman zuen.

- COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean, Lehendakariak, 2020ko abuztuaren 15ean 17/2020 Dekretua eman zuen, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Hirugarrena: Gaur egun, kasuen hazkunde kezkarriaren ondorioz, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera berri bat onartu da Estatu osoan, 2020ko azaroaren 9ko 00:00ak arte, dagozkion luzapenen kalterik gabe.

Laugarrena: Aipatutako arauaren 2. artikulua emandako eskuordetzearen ondorioz, Lehendakariak 36/2020 Dekretua eman du, urriaren 26koa, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

Argudioak

Lehenengoa: 2020ko urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez aitortutako alarma egoerak, besteak beste, kontratazioan dauka eragina, beti ere COVID-19ak sortutako egoerarekin lotura zuzena daukan kasuetan.


Eta esleipen honekin, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa den portatilen hornidura kontratatu nahi da.

Bigarrena: Aurrekoaren ildotik, eta osasun krisiaren ondorioz, administrazio publikoek telelana egunerokoan sartu behar izan dute, funtzionamendu egokia eta zerbitzu publikoen prestazio egokia bermatzeko.

Testuinguru horretan, irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen, administrazio publikoetako telelaren arloko presazko neurriei eta osasun-sistema nazionalako giza baliabideei buruzkoa, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko.

Dekretu horrek Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du, 47 bis artikulua gehituz. Horren helburua administrazio publikoetan telelana arautzea da.

Hala, aipatutako 47 bis artikulua 4. paragrafoan hurrengo adierazten da: *“la Administración proporcionará y mantendrá a las personas que trabajen en esta modalidad, los medios tecnológicos necesarios para su actividad”*.



Hori dela eta, telelana berme guztiekin egiteko ordenagailu eramangarriak behar direnez, beharrezkoa da horien berehalako hornidura.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua araber, emergentzia egoeran beharrezkoak diren kontratazioak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazio espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzioa hasteko epea, ezingo da izan hilabete baino handiagoa.

Laugarrena: Aurretiaz adierazi dugun bezala, COVID-19a eragindako osasun-alertari aurre egiteko, beharrezkoa da, emergentziaz, portatilen hornidura kontratatzea. Horiek horrela, PC Componentes y Multimedia, S.L.U enpresaren aurrekontua eskuratu da.

Bosgarrena: Esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erakunde Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren araber, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari dagokio.

Erabakia

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: Emergentziazkoa deklaratzeko 10 portatilen hornidura kontratatze espedientearen tramitazioa.

BIGARRENA: 10 portatil eskuratzeko hornidura kontratua, B73347494 IFZ zenbakidun PC Componentes y Multimedia, S.L.U enpresari esleitzeko, 5.776,90 eurotan BEZa kanpo, (BEZari dagokion zenbatekoa: 1.213,15 euro, GUZTIRA: 6.990,00 euro), eta esleipendunak aurkeztutako proposamenarekin bat.

HIRUGARRENA: 6.990,00 eurotako gastua lotzea indarra dagoen udal aurrekontuko 01300-9250-6260100 kontusailaren kontura.

LAUGARRENA: Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua ematea eta, ohartaraztea, kontratuaren exekuzioa erabaki honen jakinarazpena jaso eta gehienezko hilabeteko epean hasiko ez balu, esleipena bertan behera geratuko dela.


BOSGARRENA: Esleipendunari, kontu-hartzaileari eta diruzainari erabakia jakinaraztea.

SEIGARRENA: Erabaki hau kontratugilearen profilean argitaratzea, dagokion publizitatea izan dezan.



ZAZPIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E400052EEB00Y3A9B3F8K9X8</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 02/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 02/11/2020 11:18:13</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_DEK1327</p> <p>Fecha: 02/11/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	--

